80. Fortuna Mendi Ibilaldia

ARAUDIA

1. art. Fortuna Kirol Elkarteak ibilaldi honen antolaketarekin duen helburua kultur eta kirol zaletasuna zabaltzea da, izan ere, mendizaletasuna sustatzeaz gain, gure mendietako bazterrak eta bideak ezagutzera eman nahi ditu.

2. art. 80. Mendi Ibilaldi hau 2022ko ekainaren 5ean ospatuko da. Irteera IRURITAN egingo da goizeko 6:40tan eta helmuga ATARRABIAN egongo da. Ibilaldi Erdia (22 km) EGOZKUE GAINEAN hasiko da 9:30etan, bertan ibilbide luzearekin bat eginez.

3. art. Ibilbidea 44 kilometro ingurukoa izango da eta 2.300 metroko desnibel positiboa du (Erdiak 930m). Leku hauetatik igaroko da: IRURITA, ELORREGI, SAGARDEGI lepoa, XURIAIN, URRABIA lepoa (1. kontrola), AZEGI, EGOZKUE gaina (2. Kontrola), BARATXUETA, OIARTZABAL, SAN SALBADOR ermita, ELIXATO, ARBEko lepoa (3. kontrola), ARROMENDI, ZABALGAIN, IGUNTZU eta ATARRABIA.

4. art. Banaka edo gehienez ere hiru kidek, adin nagusikoak, osatutako taldetan egingo da Ibilaldia eta kontrol guztietan erakutsi beharko da ibilaldiko txartela.

5. art. Ibilaldiaren iraupena 10 ordu eta erdi ingurukoa da eta 6 ordu ingurukoa, berriz, ibilaldi Erdiarena. Ibilbidea burutzen duten parte-hartzaileek diploma jasoko dute helmugan, betiere txartela behar bezala beteta aurkezten badute eta ibilbidea egiteko 7 ordu baino gehiago eta 12 ordu baino gutxiago behar izan badituzte. Ordu horretan helmugako kontrola itxi egingo da. Ibilaldi Erdiari dagokionez, gutxieneko denbora 4 ordu eta erdikoa da eta gehienez 19:30ak arte.

6. art. Derrigorrez erretiratzeko gunea: 3. kontrola (Arbe, 35. Km) eta 17:20tan itxiko da. Bertara beranduago iristen diren parte-hartzaile guztiak erretiratzera derrigortuta daude; jarraitu nahi izanez gero, antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik edukiko.

7. art. Izena emateko: www.cdfortunake.com webgunean. Prezioak hauek dira: **10€** mendi federatuek eta **13€** ez federatuek. Autobus-zerbitzuak: **12,50€** joan-etorria eta 6**€** Atarrabiatik Iruritara.

8. art. Autobus zerbitzuak: **A) JOAN-ETORRIA**. Fortuna KEak autobusak antolatuko ditu Andoain, Donostia eta Irunetik pasata Iruritara joateko (Egozkue gainera laburraren kasuan) ezarritako geltokietan. Atarrabiatik jatorrizko puntuetarako itzulera A-15etik autobusak bete ahala egingo da. **B) ATARRABIATIK IRURITARA**. (aukera hori gauzatzeko gutxieneko erabiltzaile kopuru bat behar izango da). Informazio gehiago nahi izanez gero: www.cdfortunake.com /ekitaldiak@cdfortunake.com / Tel. 943214900

9. art. Ibilaldia mendiko ibilaldi bat dela kontuan hartuta, parte-hartzaileek horrek dakartzan arriskuak kontutan eduki beharko dituzte. Bestalde, Elkarte antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileek izan ditzaketen istripu, galera, kalte edo lesioagatik, edo kontroletik kanpo iristeagatik, ez eta antolakuntzari zuzenean egotzi ezin zaion edozein gertakizunengatik ere.

OHARRAK ETA GOMENDIOAK

1.- Ekipaia. Irteeran ekipaia adierazitako autobusaren maletategian utziko da. Ez utzi beste ezer autobusetan. Ekipaia helmugan jasoko da.

2.- Bidea. Ez dago zailtasuneko zatirik bidean. Ibilaldia 1.200 metrotako igoera batekin hasten da, Iruritatik Xurianera, Ultzama eta Arga ibaien ur muga jarraituz. Pagadi zabalak Urrabia eta Baratxueta artean. 25. Kilometrotik 28ra, baso nahasia (pinua, pagoa eta haritza), geroago landa eta zuhaiztiak tartekatuz, pinudi batzuekin, ezpelarekin eta lurralde zabalagoak bukaeran. Bideak, 28 eta 32 kilometroen artean GR-225a jarraitzen du, bide honek 1938an 795 presok San Kristobal (Ezkaba) gotorlekutik egindako ihesaldia gogoratzen du.

3.- Hornidura. Mendi ibilaldi honek norberak bere edari eta janaria ematea proposatzen du. Hala ere, kontroletan oinarrizko edariak eta janariak banatuko dira. Hasieratik edaria eraman beharko da, ibilbidean bi iturri bait daude soilik (batere ez Erdian); bat 11. Km-an eta bestea, ez beti urarekin, 20. km-an.

4.- Larrialdiak. Larrialdi kasuan, igandeko antolakuntza telefonoa 689234367 zenbakia izango da.

5.- Balizajea. Ibilbide honetan material degradagarriak bakarrik erabiliko dira (oihala edo papera eta banderak) eta guztiak jasoko dira behin Ibilaldia amaitzean. Garrantzi handia duten zenbait bidegurutzetan puntu urdinak margotuko dira bidea errazago adierazteko.

6.- Hondakinak. Mendiari eta naturari zor zaion errespetuagatik, ontziak eta hondakinak gorde eta helmugan utzi behar dira; edo hobeto, etxera eraman.

7.- Kamiseta. Parte-hartzaile bakoitzari kamiseta bat emango zaio helmugan, Ibilaldiaren oroigarri moduan.